

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Helbidearentzako diru-laguntzen deialdia. Identifikatzaile bakar baten bitartez eraikuntzak kokatzeko eta seinaleztatzeko proiektua

Helbidearen zalantzarik gabeko identifikatzaileak hutsik edo okupatuta dagoen edozein eraikuntzaren kokapena lor dezake, batez ere larrialdi zerbitzuetarako.

Asteartea, 2018.eko abuztuak 14

Barne zuzendaritza Saileko nagusiak Nafarroako Udaletxeentzako 201.ko diru-laguntzen deialdia egin du gaur bertan, [NAO](#)an publikatuz, bere sakabanatuetan egingo diren ekintzen kokapena eta seinalatzea zehazteko. Diru-laguntza hauek [Helpbidea](#) web aplikazioaren (API SITNAN oinarritutako bisore geografikoa) hedapenarekin lagundu nahi dute. Aplikazio honek, helbide bakoitzak duen identifikatzaile bakar baten bidez, Nafarroako edozein helbide identifikatu ahal izango du.



Metro-baserri de Zubieta. / Zubietako Metro-baserri

Proiektu honek, Nafarroan dagoen edozein eraikuntzari nolabaiteko NAN zenbaki bat egokitu nahi dio. Lurzoru landatan hutsik edo okupatuta dauden eraikuntzen kopuru nabarmena kontuan izanda, oso proiektu garrantzitsua da Nafarroako lurralde informazio sistemarentzako (NLIS), (honek 2016-19ko estrategiko plangintzan barne duelarik), eta babes zibilarentzako, azkeneko hau diru-laguntzaren sustatzailea bait da.

Aplikazioak Nafarroako posta helbideak kokatzeko gaitasuna du irizpide desberdinekin: Udal herria, entitate singularra, kalea, ataria, etxearen izena edo Helpbidearen IDa. Honen bitartez, iraganean larrialdi zerbitzuekin izandako akatsak lekuetara ailegatzeko edo baserriak kokatzeko saihestuko dira.

Hau dela eta, María José Beaumonte, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak, herritar eta Udaletxeei dei egiten die: Nafarroak, batez ere, iparraldean, sakabanatu kopuru handi bat duenez, proiektu hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu, larrialdi zerbitzuak eta baita gainontzeko zerbitzu publikoak guztiengana ailegatu daitezten.

Badakigu, Udaletxeak jakinaren ganean daudela eta diru-laguntza hauekin egiten dituzten lanekin lagun nahi diegu. Bestalde, herritarrek jakin beharko dute proiektu honen garatzeak ekarriko dituen aurrerapausoak eta hobekuntzak urrun edo gaizki komunikatutako lekuetan bizi diren pertsonentzako.

Metro-baserri, plakak eta seinaleztapenak

Diru-laguntza jasoko duten ekintza garrantzitsuenak "[metro-baserriren](#)" diseinua, sakabanatu bakoitzeko plaka identifikagarri diseinua eta bidegurutzetako seinaleztapen horizontalak dira, eraikuntza bakoitzaren helbidea adieraziz, bere izena eta Helpbidea identifikatzailearekin.

Metro-baserri mapa topologiko bat da, PDF formatuan eta metroko planoen estetika erabiliz, era erraz eta arin batean Udaletxeko sakabanatuak topatzea eta haietara ailegatzea baimentzen du. Gutxienez egin beharreko ibilbidea, helbideren identifikatzailea eta izena izan behar du. Existituz gero, sakabanatu bakoitzeko Helpbide identifikatzailea gehitzeak diru-laguntza jasoko du.

Plaka identifikagarriek izen behar duten gutxieneko tamaina 2012 Zentimetrokoa izan behar du. Era berean, egurats zabaletarako prest dagoen materialaz eginda egon beharko da eta goiko ezkerreko zatian helbide logoa gorri eta grisez izango duela. Identifikatzailea beltza izan behar du.

Eskaerak dagokion tramite [katalogoaren fitxaren bitartez](#) egin beharko da edo zuzenean [Erregistro Elektronikoko Orokorraren](#) bitartez. Epea, bihar hasiko da, abuztuak 15 eta irailaren 3an bukatuko da.

Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak, aurtengo azaroaren 1.a baino lehenago egin beharko dira.

